ASTEKARIA | 2022ko uztailaren 22an | XXVI. urtea | USURBIL | 917. zenbakia | www.noaua.eus TOKIKOM

noaua

HERRIA HERRITIK. BESTE 25 BAIETZ!

Udalak Ucini jarritako ingurumen baldintzen aurka agertu da epailea

Zubieta, Urdaiaga eta Atxegaldeko jaien egitarauak batu ditugu

Errausketaren Aurkako Mugimendua:

“Ez da Arkaitzerreka kutsatzen duten lehen aldia”

Edertu zaitez!

Anar ESTETIKA

FOTODEPILAZIOA
DIODO LASERRAKIN

Munalurra 2, Usurbil 943 571 680

Estetika gidan parte hartzeko: 943 36 03 21 - publizitatea@noaua.eus

Albisteak iruditan

Pagazpe pilota elkartekoen agurra kirol denboraldiari

Pagazpe pilota elkarteko kide gaztetxoenekin talde argazkia atera zuten ikasturte amaieran, Mikel Laboa plazan.

Pozik eta gustura amaitu dute kirol denboraldia Pagazpe pilota elkarteko kide gaztetxoenek. Ekainean, oporretara joan aurretik atera zuten talde argazkia duzue ondokoa; pilotari belaunaldi berriarena. Merezitako oporraldiaren atarian. Eta orain, udako atseden tarte luzean direla, pixkanaka hurbiltzen doan irailera begira honez gero. 2022-23 denboraldia ate joka baita. Frontoia berriz ere, pilotako entrenamendu saioen itzuleraren zain.

Laburrean

Kasu berriak, beherantz

55etik 34ra murriztu da astebeteko tartean, 7 eguneko kasu berrien agerraldia. Uztaileko lehen 17 egunetan, 97 Covid-19 kasu berri. 100.000 biztanleko 14 eguneko koronabirusaren intzidentziak ordea zertxobait gora egin du uztailaren 10etik 17ra; 1383,01etik 1399,28ra.

1958an jaiotakoen bazkaria

Bi urteren ostean, 1958an jaiotakoak berriz bilduko dira bazkaritarako. Irailaren 10ean, Artzabalen. Izena emateko 50 euroko ordainketa egin irailaren 2a baino lehen kontu zenbaki honetan:
ES 12-3035 0140 39 1400034099
(Laboral Kutxa).

Hurrengo NOAUA: Irailak 9

Eskuartean duzuena oporraldi aurreko azken NOAUA! aldizkaria da. Hurrengoa irailaren 9an plazaratuko dugu. Hilaren 2ra arte helarazi ahalko dituzue zorion-agur edo oharrak: 943 360 321.
Emaila: erredakzioa@noaua.eus
Helbidea: Bordaberri 3, behea.

noa.ua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14.00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako: erredakzioa@noaua.eus

Usurbilgo Udala
Euskal presoak
Euskal Herrira!

Gipuzkoako Foru Aldundia

Ugaitz Agirre Zapirain

Baloia hitz txostena (IV)

edo noiz mihiarekin altzairuaren zaporea dastatu izan zuen horrek ere piezaren kalitatean zeresana izan zezakeelakoan. Horretan harrapatu zuen ezusteak. Zerua buru gainera erori izan balitzaio bezala, eta une batez, erromatarrek inguratuta zuten galiarra sentitu zen. Emaztea gorila edo antzerako zimino bati eskua emanda ikusi omen zuten kalean. Fidel ez izateak ez zuen kezkatzen, horregatik deitzen zen Eva, eta tradizio judeo-kristauak eta katekesiak zerbait erakutsi badute, zera da: emakumeak aukera baldin badu, gizonezkoa tentatuko du. Halere, inolako testu sakratutan ez da ageri zimino bat limurtzeko gai denik. Ez zeukan zalantzarik: limurtze asmorik egon bazen, Eva hain izan zen inozoa, ezen tximu batek zoratu zuela.

Ei Ugaitz! Baina zer demontre ari zara idazten? Surrealismoak ere bere mugak ditu, alajaina! Eta garrantzitsuena dena: zer titulu klase da hori? Non daude bia eta hirua? Estrabiatuta?

Arazo teknikoak egon dira. Hasiera batean baloia hitz txostenaren bigarren atala aurreikusita zegoen, baina oporrak edo eguraldia tarteko, sistema zoratu egin da.

Nola sistema zoratu?

Itzuli zenean, beste bat zirudien Anek. Selektibitateko

"Uda ostean indarberrituta azalduko naiz eta inoizko istorio interesgarriena idatziko dut".

UGAITZ AGIRRE

"Baina zer zorakeria klase da hau Ugaitz? Merezi duzu NOAUAtik ostikada batez bidaltzea. Nola ulertuko du irakurleak zuk zerorrek ere ulertzen ez duzun zerbait?"

emaitzak jakin zituenean bertan bazekien ez zela medikuntzan sartuko. Aurpegian nabari nion, eta bestelako ezer aipatu aurretik, motoan buelta bat ematera gonbidatu nuen.

Hondartzara joan ginen ilunabarraren presentzian isilik egotera. Freskagarri pare bat erosi nituen makinan eta uda aurreko gau udatiar hartan ilargiak distira bereziarekin argiztatzen zuen iluna.

Baina zer ilargi eta zer ilargi ondo? Eta nor da Ane? Amaiaren laguna? Portzierto, aurkitu al dute azkenean edo oraindik gaztelaniaz esan ohi den bezala *busca y captura* egoeran aurkitzen da? Jendeak oraindik ez daki nor den ere Amaia.

Hirukote pedante hura entzuten barrua sutan jartzen zitzaion polizia ohiari. Bere etxeko bakardadean jarrita hitz bakar bati ere ez zion ihes egiten uzten. Lerdokeriak bata bestearen atzetik. Zer demonio zen jainko berrien ergelkeria hura? Euskaldunek jainko batzuk izan dituzte eta zuten berrien beharrik. Gauzak nahasteko gogo nardagarri hori, gazte axolagabe eta kaskarin horiek dena hankaz gora eta zentzugabe utzi nahi zuten. Eta okerrena zen administrazio publikoaren onarpen osoarekin ari zirela horretan.

Norbaitek geldiarazi behar zituen deskalabru handiago bat egin aurretik. Nor izango zen, ordea, halako enpresa abiaraziko zuena muga gorriak edonon jartzen zituen gizarte batean? Tolerantzia zela, askatasuna zela, errespetua zela... Galbidera zihoan gizartea, eta horren jakitun zen Berasategi inspektore ohia.

Eta orain inspektoreen kontua? Baina zer zorakeria klase da hau Ugaitz? Merezi duzu NOAUAtik ostikada batez bidaltzea. Nola ulertuko du irakurleak zuk zerorrek ere ulertzen ez duzun zerbait?

Oporrak behar ditut.

Hori ez da aitzakia horrelako kuxidadea egiteko! Zer pentsatuko dute hau irakurtzen dutenean erredakzioko kideek? Seguruenik ea zein droga klase maneiatzen den zure inguruan, zeren eta koherentzia gabezia hau ez da normala ezta zirkulu abangoardistenetan ere.

Zin dagit ez dela berriz gertatuko, emadazue beste aukera bat.

Aukerak garesti ordaintzen dira hemen. Zer uste duzu dela Noaua, hirugarren mailako libreto bat? Hemen ere errespetu bera eskatzen dugu.

Uda ostean indarberrituta azalduko naiz eta inoizko istorio interesgarriena idatziko dut. Denak zur eta lur utziko dituena, eta hilabetero zain egongo dira ea nola jarraituko duen jakin nahian.

Hori da hori egoa.

Uda ostean, zin dagizuet!

Alazne Arruti Bengoetxea | Ainhoa Azpirotz Eizmendi | Luis Aranalde | **Ugaitz Agirre Zapirain**

Komikia



Udalbatzarra, astebete lehenago

Urtero moduan, astebete aurreratu du Usurbilgo Udalak hileroko udalbatzarraren hitzordua, ostegun honetara, uztailaren 21era hain zuzen, 18:00etan hasiko dute saioa.

Melillako sarraskia, Errefuxiatuen Eguna edota Osakidetzako murrizketak hizpide dituzten adierazpen eta mozioak bozkatuko dituzte. Zinegotzi baten liberazioa ere ahotan hartuko dute. Baita diru kontuak ere; iazko Kontu Orokorraren edota kreditu aldaketa baten onarpenak. Aginagako Elutx eremuari eragiten dion hirigintza hitzarmena behin betiko onartu edo ez ere erabakiko dute. Udalbatzar honen berri iraileko lehen aldizkarian.

Ekintzaileei zuzenduriko dirulaguntzak

Kabiene elkarlan gunean urtebetez proiektua garatzeko ekintzaileei zuzenduriko dirulaguntza lerroari lotutako lehen ebazpena kaleratu du Usurbilgo Udalak, uztailaren 18ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Deialdi honetara eskabideak aurkezteko epeak zabalik jarraituko du ordea irailaren 30era arte. Baita lokal komertzial hutsetan jarduera ekonomiko berri bat martxan jarri nahi dutenei zuzenduriko ere.

Ezohiko udalbatzarra, ostegun honetan, uztailaren 21ean.

EZOHIKO UDALBATZARRA

"Melillako sarraskia, Errefuxiatuen Eguna eta Osakidetzako murrizketen inguruko mozioa hartuko dituzte hizpide"

Odol ematea

Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak irailaren 5erako iragarri du hurrengo hitzordua. 16:30-20:30 artean, Udarregi Ikastolako erdiko aretoan. Gogoan izan, aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldiz odola ematen dutenek dei dezatela hona: 943 007 884.

Bete beharreko baldintzak:

-18-65 urte artean izatea.
-50 kilotik gora pisatzea.
-12 urte baino lehenago hepatitisa izan, kolesterol maila altua izan, baraurik egon ez edota ohiko botikaren bat hartzen baduzu ere, odola eman dezakezu.
-Emakumezkoek urtean hiru aldiz eman dezakete odola gehienez ere. Gizonezkoek gehienez lautan. Odol emate baten eta hurrengoaren artean, gutxienez bi hilabeteko tartea igarotzen utzi beharra dago.

Ika-mika

Beste isurketa bat Arkaitzerrekan

2020ko maiatzean izan zen isurketan, ehunka arrain eta aingira akabatu zituen erraustegiak eragindako desastre ekologiko hark. Uztailaren 13an arratsaldez beste isurketa bat izan da Zubietako Arkaitzerrekan, eta oraindik isurtzen jarraitzen du. Erraustegitik datorrela bistakoa da, eta zoritxarrez, oraingoan ere gai toxiko zikinez salbuetsia izango ez delakoan gaude.

Gipuzkoako Foru Aldunditik eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortziotik (GHK) "Ingurumen Zentroa" deitzen dioten horrek, gure ingurumena kutsatzen du gai toxikoak kontrolik gabe urez, lurrez eta airez botaz. Beste behin, Arkaitzerreka eta bertako ingurunea kutsatu dituzte. Berriz ere, enpresa kudeatzaileari botako diote errua edota arazo teknikoei, benetako neurririk hartu gabe. Bitartean gaur, ostirala, isurketak eta hondakin kimikoen pilaketak bere horretan dirau honekin amaitze neurririk hartu gabe.

Erraustegiaren atzean ordea EAJ-PNV eta PSE-EEren eredua dago: dirua guztiaren gainetik. Trikimailu legal guztiak erabiliz, arautegiak beren konbenientziara moldatuz, mafia instituzionala bezala funtzionatzen dute ase ezinak diren enpresa jakin batzuen mesederako. Eta azpiegitura mardula muntatu dute eredu hau egonkortzeko. Badirudi, Zaldibarreko tragediatik ez dugula ezer ikasi. Hondakinak ez dira desagertzen erraustuz gero!

Azken finean, negozio borobila da erraustegia, ekonomia berde, jasangarri eta zirkular baten zurikeria salduz Zubietako lurrak eta inguruko ur eta airea kutsatzea merke ateratzen zaie alajaina. Edonolako aire isurketak doakoak dira eta erreka batean sortutako desastre ekologikoa eragitea 10.000 euroko isun bat besterik ez (arau-hauste arin bat GHKren arabera).

Isurketaren arrazoiak, ondorioak eta arduradurak lehenbailehen ikertzea eta erantzukizunak zehaztu bai argitzea exijitzen diegu Jose Ignacio Asensio ingurumen diputatuari, GHKri, Ura Agentziari eta dagokien beste erakundeei. Eta, jakina, guztia argiki publiko egitea ere bai.

Usurbilgo herriak hainbatetan garbi utzi du errauste plantarekin, atzean duen eredu kutsakor eta jasangaitzaren aurka dagoela. Zubietarren eta usurbildarren nahiaren gainetik inposatutako munstroa da. Munstro honek dakartzan ingurumeneko ondorioak nabariak diren honetan, Usurbilgo EHBildutik erraustegiaren aurkako jarrera irmoa adierazi nahi dugu. Eta halaxe agertzen dugu ordezkaritza dugun foro guztietan: "Errausketarik ez, ez hemen eta ez inon!". Errausketa ez baita hondakinak kudeatzeko modu jasangarria inolaz ere.

Hitzez, borondatez eta ekintzez; Usurbilek bere bidea egiten dihardu. Duela hamarkada bat baino gehiago ekin genion Usurbil 0.0 bideari murrizketa, berrerabilera eta birziklapena ardatz izanik. Alternatiba tokitik eta gure baliabideen baitan eraikitzen eta erraustegia zein honen arduradun politikoak salatzen jarraituko dugu. Herri honek eredu jasangarri bat eta natura errespetatzen duena merezi eta nahi duelako.

Erraustegirik ez, ez hemen eta ez inon!

Usurbilgo Euskal Herria Bildu

Maria Hernandez: “Horrelako esperientziak bizitzan behin izaten dira”

Txekiar Errepublikan eman ditu Maria Hernandez usurbildarrak azken hilabeteak. Erasmus programaren bitartez iritsi zen bertara. NOAUA!rekin izan da esperientzia horren nondik norakoak partekatzen.

NOAUA! Noiztik zaude Pragan eta zergatik joan zinen bertara?

Maria Hernandez: Iraila amaieran iritsi nintzen hona. Argi neukan Erasmus esperientzia bizi nahi nuela eta lekuen zerrenda aztertzen hasi nintzenean, aukera honek erakarri ninduen gehien. Europa erdialdean dagoenez, aukera ederra ikusi nuen. Gainera, inguruko herrialdeetara bidaiatzeko leku zoragarria iruditu zitzaidan.

Unibertsitateari ere erreparatu nion eta itxura ona hartu nion. Irakasgaiak aukeratzeko garaian ezinhobe zetorkidan, inolako arazorik gabe irakasgaiak balioztatzeko aukera ematen zidatelako. Lehen aukera jarri nuen Praga eta horixe eman zidaten. Oso gustura nago.

Zein ikasketa ari zara egiten?

Biokimika egiten ari naiz. Irakasgaiak balioztatzeko garaian lan dezenterekin ibili naiz. Ez da erraza aukeraketa behar bezala egitea. Kreditu kopurua eta irakasgaiak oso ezberdinak dira. Denborarekin eta gauzak lasai hartuta, urratsez urrats eskatutakoak bete ditut eta ez dut arazo berezirik izan.

Maria Hernandez biokimika ikasten ari da Pragan.

MARIA HERNANDEZ

“Argi nuen Erasmus esperientzia bizi nahi nuela. Aukerak aztertzen hasi nintzenean, Pragak erakarri ninduen gehien”

Hilabete batzuk badaramatzazu Pragan eta horrek bidaiatzeko aukera emango zizun. Non izan zara eta nora gehiago joatea gustatuko litzaizuke?

Hasieran Txekiar Errepublikan dauden hiri eta herri bereziak bisitatu genituen, herrialdea hobeto ezagutzeko. Gerora Europan zehar ibili gara. Austrian izan ginen lehenbizi, Vienan. Handik bueltan oso hegaldi merkea aurkitu genuen Edimburgora joateko eta Eskozian izan ginen. Imanol Iribarri bisita ere egin genion Suedian (*Tokitan* atalean eginiko laugarren elkarrizketaren protagonista) eta martxoan aurrera eta atzera ibili ginen, ia gelditu ere egin gabe. Bratislavan izan ginen eta eskiatzera ere joan gara; Austriatik auto bat hartu eta Alpeetan ibili ginen. Krakovian, Budapesten eta Berlinen ere egon gara duela gutxi. Asko bidaiatu dugu erraztasun handiak ditugulako hemen. Alemaniara eta Austriara trenez joan gaitezke. Ordu asko dira baina merkea da ikasleentzat eta aukera ederrak dauzkagu. Aste Santuan bisitak jaso genituenez, garai horretan ez ginen gehiegi mugitu.

Gustatuko litzaiguke esperientzia hau amaitu aurretik Italia aldera joatea. Oraindik ez daukagu ezer itxita, baina asmoa hori da. Bidaia gehiago ere aterako dira agian, baina momentuz hori da buruan daukaguna.

“Txekiarrak hotz samarrak dira”

NOAUA! Bertakoak ondo moldatzen al dira ingelesarekin ala, alderantziz, hizkuntza ez da arazo bat izan zuretzat?

Maria Hernandez: Nahikoa ondo ari gara moldatzen ingelesarekin. Gazteek oso ondo hitz egiten dute ingelesez. Oso txikitan hasten dira bigarren hizkuntza hori ikasten eta guk baino askoz hobeto egiten dute. Helduagoak ez dira gai ia ezer ulertzeko eta batzuk tutik ere ez dakite. Kasu horietan, txekieraz dakizkigun bi hitzez baliatzen gara nolabait ulertarazteko, baina normalean ingelesarekin aurrera ateratzen gara.

Europa erdialdeko jendea nahikoa hotza da. Txekiarrak ere halakoak al dira?

Bai, egia esan nahikoa hotzak dira. Lagun txekiarrik ez daukagu. Hasieran *buddy* bat izan genuen, herrialdera iritsi eta unibertsitateko ikasle batek lagundu egiten digu bertako bizimodura ohitzen eta kultura pixka bat ulertzen, gero hobeto moldatu ahal izateko. *Buddy* horrekin eta haren lagunekin harremana izan genuen hasieran eta ez zitzaizkigun oso hotzak iruditu. Kalean, norbaiti zerbait galdetzerakoan, beti distantzia jartzen dute eta hotz samar agertzen dira gainontzekoen aurrean.

Zenbat eta adinekoagoak izan, orduan eta mesfidantza gehiagorekin hartzen dituzte atzerritarrak. Inpresio hori dut. Txekiera ez dugunez hitz egiten, ez gaituzte oso ondo hartzen. Gazteak orokorrean oso jatorrak dira.

“Etxera itzultzeak beldur pixka bat ematen dit egia esan, oso gustura nagoelako hemen”

NOAUA! Eguneroko martxan, Euskal Herrikoekin edo mundu zabaleko jendearekin ematen duzu denbora gehien?

Maria Hernandez: Normalean euskaldunekin elkartzeko joera daukagu edota espainiarrengana hurbiltzekoa. Egunerokoan euskaraz egiten dut nire pisukidearekin eta ondoko gelan Valentziako bi neska bizi direnez, haiekin erdaraz egiten dut. Oso harreman ona daukagu haiekin ere.

Ahalegina egiten ari gara bigarren lauhilekoan munduko beste txokoetako jendearekin gehiago harremantzeko. Alemaniako batzuk ezagutu ditugu, greziarrak ere bai, portugaldarrak… Leku askotako jendea ezagutu dugu. Gero eta gehiago elkartzen gara horiekin zerbait hartzera joateko edota bidaiatzeko. Modu horretara, ingelesa gehiago ari gara praktikatzen, bestela beti gaztelerara jotzeko joera daukagu.

Pandemia baten “amaieran” tokatu zaizu Erasmus esperientzia hau. Nola daude gauzak bertan?

Otsaila aldera kendu zuten musukoaren erabilera hemen eta jada garraio publikoan baino ez dugu erabili behar.

“Alemaniarrak, greziarrak, portugaldarrak… Jende asko ezagutu dugu”.

MARIA HERNANDEZ

“Familia faltan botatzen dut, amama batez ere”

Gainontzekoan egoera nahikoa ona dela uste dut gaixo kopuruari eta heriotza kopuruari dagokienean. Hilabete oso gogorrak ere bizi izan zituzten hemen. Abenduan, Pragan oso ezaguna da Gabonetako merkatua, baina aurten ez dute hori ospatzeko aukerarik izan eta nahikoa tristeak izan ziren neguko hilabete haiek.

Horrenbeste hilabete kanpoan eman eta gero, etxea eta lagunak faltan botako dituzu, ezta?

Bai, etxera itzultzeak beldur pixka bat ematen dit egia esan, oso gustura nagoelako hemen. Batzuetan faltan botatzen dut etxean egoteak dakarren erraztasuna. Dena eginda ematen didate etxean, eta hori etxetik kanpo nagoela konturatu naiz. Familia faltan botatzen dut, batez ere, amama.

Kuadrilakoak ere ikusten ditut sare sozialetan eta kontatzen dituzte egunerokoan egiten dituzten gauzak, dela sagardotegia, dela parranda, egunpasak… Gustura egongo nintzateke haiekin momentu horietan, baina bestalde sarri pentsatzen dut hemen geratzen zaidan denbora aprobetxatu beharra daukadala eta horrelako esperientziak bizitzan behin izaten direla.

“Gradu Amaierako Lana BioDonostian egingo dut, bularreko minbizia ikertzen ari den talde batekin”

NOAUA! Zein asmo duzu datorren urterako?

Maria Hernandez: Udan Gradu Amaierako Lana egin beharra daukat, irailean aurkeztu ahal izateko. Eta ikasketa prozesu hau borobiltzeko praktika batzuk egingo ditut laborategi batean.

Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkartekoek beka bat ere eman didate praktikak egiteko. Horretan jarraitzeko aukera ematen badidate, enpresa berdinean lanean jarraitzea da nire asmoa.

Behin lan hori eginda, zein arlo gustatzen zaidan argiago izango dut ondoren master bat aukeratzeko. Master hori hurrengo urtean egingo nuke.

Nolatan eman dizute beka hori?

Gradu Amaierako Lana BioDonostiako laborategi batean egingo dut bularreko minbizia ikertzen ari den talde batekin. Haiek eman zidaten beka honen berri eta jende gutxiri ematen badiote ere, eskatzera animatu ninduten. Eskaera egin eta beka bat niri eman didate. Ikerketa beka bat da. Ikasketetan ikasi dudanarekin lotuta dagoenez, arlo hau modu praktikoan landu nahi dut eta gustuko badut, etorkizunean minbiziaren bide horri heldu diezaioket.

20 urte bete dituen Askatasuna plaza irudiz berrituko dute laster

Itxuraz berritzera doaz bi hamarkada bete berri dituen Askatasuna plaza. Hala eman du jakitera Usurbilgo Udalak. Enparantza hau inguratzen duten hormetako irudiak berritzeko diru-kopurua onartu du udal Ogasun Batzordeak, 21.000 euro guztira. Usurbilek artearekin duen loturaren beste elementu bat gehiago dira Arrastaluren irudiak, hau da, herriaren ondarearen parte dira, eta herri ondare hori zaindu eta mantentzeko helburuarekin ere egin dituzte konponketak eta elementu berrien enkargua", Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez.

'Harria Hitz' bisita gidatuetako geltokia izan da urteotan Askatasuna plaza eta Arrastaluren irudiak.

Udazkenerako prest

Aste batzuk beharko ditu Arrastaluk irudi berriak sortu eta orain arteko hainbat konpontzeko. Udalaren aurreikuspenen arabera, "udazkenean prest egon daitezke".

2002an egin zuten Askatasuna plaza, "eta gutxira, Karlos Zabala 'Arrastalu'-ren eskulturek jantzi eta leundu zituzten plazaren hormak. Besteak beste, era askotako herritarrak islatzen dira Arrastaluren irudietan; hogei urteotan, herria haztearekin batera, ugariagoa da Usurbilgo biztanleen jatorria, eta hori muralean islatzeko enkargua egin dio orain udalak Arrastaluri". Horrekin batera, duela 20 urte jarritako zenbait elementu hondatuak zeudenez, konpondu eta osaketa lanetan jardun du Zabalak, Udalaren eskariz. "93 pieza eta 140 begi inguru berritu ditu, eta 8.800 euroko kostua izan du", zehaztu dute Udaletik.

Bizilagun berrien islada

Laster Askatasuna plazak bestelako itxura izango du. "Era askotako irudiak dituzte plazako hormek. Orain, onartu berri duten partidarekin, azken hogei urteetan Usurbilera bizitzera etorritakoak ere bertan islatu nahi dituzte, herriaren jatorri aniztasuna artearen bidez ere ikusgarria izan dadin. Zenbait aste beharko ditu Arrastaluk guztiak egin eta jartzeko". Udazkenean prest egon daitezke.

Errotaberriko presa eraistera doaz

Oriaren jarioa oztopatu ez baina baldintzatu egiten duela dio Kantabrikoko Konfederazio Hidrografikoak; "errekarriak pilatu, landaredia hazi eta zaborra pilatzen da inguruan". Horregatik, eraistea erabaki dute Ingemar parean kokatua dagoen Errotaberriko presa, Usurbilgo Udalak jakinarazi duenez, ibaia lehengoratzeko asmoz. Presa erabiltzeko esleipen-epea agortuta eta Ingemarreko jarduera eten ondoren hartu dute erabakia. "Aurreikuspenen arabera, bi hilabete beharko dituzte lanak egiteko: uztailetik aurrera egingo dituzte, baina ez modu jarraian, eguraldiaren eta Oriaren beraren emariaren arabera baizik".

Errotaberriko presa Ingemar parean kokatzen da.

EROSKI city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Usurbil Döner Kebab
USURBIL
843 675 265
603 609 183
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Zuen publizitatea hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.eus

SANTIOAK 2022

gehigarri berezia

Zubietako Jai Batzordea: “Eragile pila batek parte hartu du aurtengo jaien antolaketan”

Zubietako jaiak ate-joka ditugu, eta aurten ere, Zubietako Jai Batzordeak egitarau oparoa plazaratu du. Santio jaiak normaltasunez ospatuko dituzte, pandemia aurreko garaian bezala. Horra Jai Batzordeko kideek NOAUA!rekin partekatu dituzten xehetasunak.

NOAUA! Pandemiaren ondoren, normaltasunez ospatuko diren lehen Santio jaiak izango dira aurtengoak. Neguan izandako neurri aldaketekin, antolakuntza ohikoa izan al da?

Zubietako Jai Batzordea: Antolakuntza pandemia aurreko garaietakoa bezalakoa izan da aurten. Zalantza hori bagenuen, ea ohiko moduan ospatzeko aukera izango zen edo ez, baina bazuen itxura aurtengoa ohiko modukoa izango zela eta horri heldu genion. Antzeman dugu emanaldi eta kontzertuak antolatzerako orduan gauzak asko aldatu direla. Kontzertuak ixterakoan, ezezkoak jaso ditugu talde askok uda kontzertuz gainezka dutelako. Egoera hau ez zaigu tokatu sekula orain arte; ez pandemia aurretik, ez eta pandemia garaian ere.

Jaiak normaltasunez antolatu dituzue hasieratik edo bi plan batera prestatu dituzue badaezpada ere?

Jai egitaraua atez ate banatzen aritu dira azken egun hauetan.

ZUBIETAKO JAI BATZORDEA

“Gure baikortasunak eta errealitateak bat egitea lortu dugu”

Normaltasunez hasi ginen jaiak antolatzen hasiera-hasieratik oso gogotsu eta esperantzaz beteta geundelako. Azken bi urteetan ere oso baikor ekin genion antolaketari, nahiz eta gero errealitateak bortizki jo gintuen. Hala ere, gu ohiko baikortasunarekin aritu gara eta aurten, lortu dugu gure baikortasunak eta errealitateak bat egitea.

Jai Batzordea berritzeko erronka

NOAUA! Urte aldrebes hauen ondoren, Zubietako Jai Batzordea indartu egin da ala geroz eta jende gutxiago al dago lanerako?

Zubietako Jai Batzordea: Salto handi bat nabaritu dugu 2019ko jai haietatik. Urte hartan, Zubietako Jai Batzordea oso gaztea zen eta gehienek ez zituzten antolaketa aspektu guztiak eta funtzionamendu orokorra behar bezala ikusi. Hiru urteren ondoren, esperientzia falta handia dute, ezin izan baitute zaharrenok dugun urteetako eskarmentu hori jaso.

Urte asko daramatzagun gutxi gaude eta gazteek bultzada beharra daukate ondoren eurek bakarrik bidea egiten jarraitu ahal izateko.

“Santio jaiak zubietarren elkargune dira”

NOAUA! Herriko eragile askorekin aritzen zarete lanean jaiak antolatzeko: Yoko Garbi elkartea, Zubietako pilota elkartea, guraso taldea, herriko hainbat jatetxe… Horrenbeste talderekin erraz egiten al zaizue bateratze-lana?

Zubietako Jai Batzordea: Oso eskertuta gaude aurten eragile pila batek partu dutelako jaien antolaketan. Nahiko beldurtuta geunden hasieran, Jai Batzordean ez gaude horrenbeste eta dena behar bezala antolatzeko gai izango ginen ez genekien. Eragileei esker, lan eskerga arindu egin zaigu eta gu euren arteko zubi lana egiten aritu gara. Guk gauetako kontzertuak antolatu ditugu, batez ere, eta haiek eguneko ekitaldiak osatu dituzte.

Umeen eguna uztailaren 29an ospatuko da. Goizeko 10:00etan hasiko dira jolasak.

Herri giroan, herritarrek eta herritarrentzat antolatzen dituzue jaiak, edo orain arte zuen ardatzetako bat hori izan da behintzat. Aurtengoan ere jaiak horren herrikoiak izango al dira?

Zubietan urtean zehar oso ekitaldi konkretuak baino ez dira antolatzen eta herriarentzat denak elkartu eta jai giroa sortzeko Santioak dira elkargune. Herritarrek disfrutatzeko jaiak antolatzen saiatzen gara, betiere jakinda denen gustukoak egitea oso zaila dela. Inguruko herrietatik eta urrunagotik ere jendea urtero etortzen da eta espero dugu ohitura on horiek ez direla galduko eta aurten ere jende asko hurbilduko dela Zubietara.

ZUBIETAKO JAI BATZORDEA

“Eragile ezberdinei esker, lan eskerga arindu egin zaigu eta gu zubi lana egiten aritu gara”

Aurtengo festetan ez duzue herri antzerkirik aurreikusi, baina garai batean urtero egiten zen.

Pandemia aurreko azken urteetan ere ez zen egin. Bost edo sei bat urtez jarraian egin zuten proiektu moduko bat izan zen, halako jarraikortasun batekin. Amaitu egin zen hura eta ez zitzaion jarraipenik eman. Aurten ere ez da horrelako ideiarik sortu.

Gurdiertz Rock II daukazue berritasunen artean lehen gauerako aurreikusita. Zertan datza?

Gazteenei bururatu zaien ideia bat izan da. Lasarte-Oria aldean rock taldeak dituzten gaztetxo asko daude eta bost bat kanta joko dituzte 4-5 taldek. Gazteei aukera emateko modu bat da eta izen horrekin erakargarri ere egin liteke ideia.

“Jendea parrandarako gogoz sumatzen dugu”

NOAUA! Joan zen urtean festak egin zenituzten, nahiz eta bestelakoak izan. Nolako balorazioa egiten duzue?

Zubietako Jai Batzordea: Nahiko irakurketa positiboa egin dugu. Uste dugu antolatu genituen ekitaldiak oso ondo atera zitzaizkigula eta ez genuen Covidarekin kutsatutakorik izan ekitaldien ondorioz, edo ez genuen halako berririk izan, behintzat. Neurriak betetzea ez zitzaigun erraza egin, bi udaletxeen baitan egiten dugulako lan eta bakoitzak neurri batzuk betearazi zizkigun.

Beraz, ekitaldi batzuetan edukiera neurri batzuk geneuzkan, beste batzuetan beste batzuk eta dena moldatzea ez zitzaigun erraza egin. Azkenean, emaitzak onak izan ziren eta pozik gaude emaitzarekin.

Aurtengo jaietarako urteroko jende andana espero duzue edota jende gutxiago hurbiltzea aurreikusten duzue?

Orokorrean jendea parrandarako gogoz sumatzen dugu, baina antzeman dugu jendeak baduela gogoa orain arte probatu ez dituen jaietara hurbiltzeko ere. Zentzu horretan, ez dakigu zer espero.

2019ko jaietan guk espero baino jende gehiago animatu zen eta aurtengoan ere hala izatea nahiko genuke. Beraz, uste dugu jai onak antolatu ditugula eta anima zaitezte!

Ondo pasa SANTIOETAN!
TABERNA · PINTXOAK ·RAZIOAK · BOKATAK
·HANBURGESAK ·JATETXEA ·MENUAK
· KARTA · AFARI MUSIKALAK
OSPAKIZUNAK ·EZKONTZAK ·BATAIOAK
Araeta
sagardotegia
Berridi Bidea 22, ZUBIETA 943 362 049

bugati
ERRETEGIA
UDAKO ORDUTEGIA
Uztaila eta Abuztua
• Asteartea, Asteazkena eta Osteguna
18:30etatik 23:30etara
• Ostirala, Larunbata eta Igandea
12:00etatik 23:30etara
Arrapide pasalekua, 74 20160 Zubieta (Donostia) 943 37 76 62
bugatierretegia@gmail.com • www.bugatierretegia.com

Iruin Sagardotegia
ONDO PASA SANTIOAK!!
Petritza bidea 12, Zubieta
943.361.229

noaua
jarraitu gure sare sozialak
facebook
Instagram
twitter
noaua
www.noaua.eus

Otorduetarako nahiz pilota jaialdirako sarrerak aldez aurretik eskuratu behar dira

Herri afarirako txartelak
Uztailaren 24an ospatuko den herri afarirako txartelak hilaren 21era arte salgai izango dira Alamandegin.

Jubilatuen bazkarirako txartelak
Uztailaren 24an Yoko Garbi elkartean ospatuko den jubilatuen bazkarirako txartelak aurretik erosi behar dira. Epea: uztailak 21.
Telefono zenbaki honetara deitu behar da izena emateko: 639 273 580 (Miriam).

Zikiro-janerako txartelak
Uztailaren 31rako iragarri duten zikiro-janerako txartelak ere aurretik erosi behar dira. Hilaren 26ra arte Alamandegin egongo dira eskuragarri.

Oilasko biltzaileak uztailaren 26an ibiliko dira baserriz baserri. Goizean goiz abiatuko dira, Ane eta Alazne trikitilarien erritmoan.

Pilota jaialdirako sarrerak
Uztailaren 27rako pilota jaialdia iragarri dute. Bi neurketa jokatuko dira.

Lehenean, Iker Aburuza-Oier Aramburu bikotea Andoni Olasagasti-Aimar Iraola bikotearen aurka lehiatuko da.

Segidan jokatuko da binakako bigarren neurketa: Bengoetxea-Ortiz de Urbina batetik, Urmeneta-Odriozola bestetik.

Sarrerak uztailaren 14an eta 18an jarri behar zituzten salgai Kaxkapen, 17:00-20:00 artean.

Uztailaren 27an, jaialdi egunean bertan ere "gutxi batzuk salgai egongo dira". Arratsaldeko 17:00etan hasita, hain zuzen.



Zubietako jaiak, egunez egun

Uztailak 23, larunbata

■ 18:00 Txupinazoa, buruhandiak.
■ Jarraian txosnen irekiera, Elene eta Uxuek girotuta.
■ 19:00 Sardin-jatea.
■ 23:00 Kontzertuak: Skakeo, Perlata, Fan&Go.
■ Ondoren Gurdiertz Rock II.

Uztailak 24, igandea

■ 14:00 Jubilatuen bazkaria, Yoko Garbi elkartean.
■ 17:30 Ttipika taldea.
■ Segidan buruhandiak.
■ 19:30 Bingoa txosnan.
■ Ondoren Txalagore taldea.
■ 21:00 Herri afaria, Zubietako Pilota Elkartearen eskutik.
■ Ondoren Laiotzekin dantzaldia.

Uztailak 25, astelehena

■ 09:00 Esnadeia, Donostiako Txistulari Bandaren eskutik.
■ 10:00 Meza Nagusia.

Uztailaren 23an arratsaldeko 18:00etan piztuko dute jaien hasierako suziria.

■ Hamaiketakoa, soka-dantza.
■ 17:30 Lopene ganadutegiko zezen txikiak eta poniak.
■ 19:30 Bertsolariak: Andoni Egaña, Aitor Sarriegi, Miren Artetxe, "Mantxi". Gai-jartzailea: Zortzitan Bertso Eskola.

Uztailak 26, asteartea

■ 06:00 Oilasko biltzaileen irteera, Ane eta Alazne trikitilariekin.
■ 14:30 Oilasko biltzaileen iritsiera.

Uztailak 27, asteazkena

■ 18:00 Pilota jaialdia.

Uztailak 29, ostirala

■ 10:00 Jolasen hasiera.
■ 12:30 Marrazketa saioa.
■ 14:00 Umeen bazkaria: bakoitzak berea ekar dezala. Antolatzaileen kontu postrea eta sorpresa.
■ 16:00 Jolasen jarraipena.
■ Ondoren txokolatada eta buruhandiak.
■ Bukatzeko, diskofesta.

Uztailak 30, larunbata

■ 12:00 Sagardo dastaketa eta pintxoak, Errebote Plazan.
■ Jarraian Puntu Txapelketa.
■ 16:30 Mus txapelketa (16:00etan izen ematea).
■ 18:00 Herriko gaztetxoen Joko Garbi erakustaldia, Errebote Plazan.
■ 00:00 Kontzertuak: Skasti, Gozategi, Dj Nemux.

Uztailak 31, igandea

■ 10:00 Meza.
■ 11:30 Zubietarren arteko errebote partida.
■ 14:00 Zikiro jatea.
■ 18:30 Pentatloia. Aratz Mugerza eta Xabier Zaldua.
■ 23:00 Herriko jaien amaiera traka eta suziriekin.

Oharrak:

■ Jaietan gerta litezkeen ezbeharretan, Zubietako Jai Batzordeak ez du erantzukizunik.
■ Musika egunero egongo da txosnetan gau eta egun.
■ Jaietan ez da onartuko eraso sexista, homofobo, arrazistarik.

Abuztuaren 3tik 6ra, Urdaiagako festak

Abuztuak 3, asteazkena

■ 10:00 Txupinazoa.
■ 11:00 Meza. Jarraian, herriko dantzariak eta paxientxi eta ardo goxo banaketa.

Abuztuak 5, ostirala

■ 21:00 Musikarien afaria.
■ 23:00 Oihana Iguaran, Alaia Martin eta Iker Zubeldia bertsolariak. Gai-jartzailea: Amaia Agirre.
■ 00:30 Joxpa erromeria.

Abuztuak 6, larunbata

■ 11:30 Umeentzako jolasak.
■ 15:30-16:00 Mus txapelketarako izen-ematea.
■ 16:00 Mus txapelketa.
■ 18:30 Buruhandiak.
■ 21:00 Musikarien afaria.
■ Jarraian: Odolaren Mintzoa eta Rukula.

Antolatzailea: San Estebango Jai Batzordea.

Abuztuaren 3an hasiko dira jaiak. San Estebango ermitaren ondoko plazatxoan egingo dira ekitaldi denak.

Mentalia Usurbil Zentroa

Mentalia Usurbilen ongizatea, autonomia pertsonala eta gizarteratzea dugu helburu pertsonen bizitza proiektua eraikitzen laguntzen dugularik. Tratamendu pertsonaliza tuak eta jakintza-alor anitzeko izatea duen arreta eskeintzen dugu.
Zuen zoriontasuna gurea delako.

- Ongizatea
- Autonomia pertsonala
- Gizarteratzea

Helbidea
C/ Urdaiaga, 48
20170 Usurbil (Guipúzcoa)

943 36 11 24
mentalisalud.es

Mentalia salud

Osasun mentaleko desoreken tratamenduan espezializatutako zentroak

URTINEA

Jantzi kolorez zure etxe, balkoi zein lorategia!

Era guztietako aukerak oparitzeko: garaiko loreak, frutarbolak, loreontziak, lore-sortak...

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

Atxegaldeko jaiak bueltan dira

Abuztuak 26, ostirala

■ 18:00 DJ Ibiltaria.
■ 20:00 Txupinazoa.
■ 23:00 Kontzertuak: Arene 6, Sofokaos, Dj Jotatxo.

Abuztuak 27, larunbata

■ 11:00 Umeentzako jokoak.
■ 15:30 Mus txapelketa.
■ 16:00 Kickboxing ikastaroa.
■ Ondoren, buruhandiak eta txokolatada.
■ 21:00 Afari musikatua Maddi eta Elenerekin.
■ Jarraian kontzertuak: Errietan, Gora Etorri, DJ RR.

Abuztuak 28, igandea

■ 11:00 Toka eta hamaiketakoa.
■ 18:00 Patata tortilla txapelketa.
■ 22:30 Traka.
Antolatzailea: Atxegaldeko Jai Batzordea.

Umeentzako jokoak iragarri dituzte abuztuaren 27rako.

noaua

HERRIA HERRITIK BESTE 25 BAIETZ!

Askorako eman dute 25 urtek. 1996. urtean usurbildar askoren inplikazioari esker izugarrizko bultzada izan zuen Noaua Kultur Elkartearen sorrerak.

Herria Herritik egiteko bultzada jaio zen usurbildarren bihotzetik eta eskuz esku mantendu da indar hau denbora guzti honetan zehar.

HARTUKO DUZU ERRONKA? EGIN BAZKIDE!

Zurekin batera beste 25 urte (gutxienez) Herria Herritik egiten jarraitzeko erronkan parte hartzera animatu nahi zaitugu.

40€ URTEAN

30 urte baino gutxiago dituzu?
Bazkide izatea erraztu nahi dizugu!
25 € / URTEAN*
* 30 urte betetzean automatikoki bazkidetza arrunta izatera pasako da.

ABANTAILAK

Abantaila nagusia herriarentzat izango da. Noaua Kultur Elkartea eragile garrantzitsua da herriko bizitza kulturala, aisialdikoa, etabar bizirik mantentzeko. Baina zuk ere abantaila batzuk izango dituzu:

- **Zozketak.**
- **Deskontuak kultur ekimenetako sarreretan.**
- **Datorren urteko errenta aitorpenean hobaria jasoko duzu.**
- **Usurbildik kanpora bizi diren herritarrei, aldizkaria astero posta arruntez jaso aukera.**

ZOZKETA

Abendura bitarte bazkide egiten bazara, Usurbilgo komertzioetan erabiltzeko 150 €-ko erosketa bonoaren zozketan parte hartuko duzu.

3 modu dituzu bazkide egiteko:

ESKANEATU

Bete beheko inprimakia eta bulegora ekarri

Webgunearen bidez noaua.eus/bazkidetu

Telefonoz 943 360 321

Izena .....
Abizenak .....
Nortasun agiria .....
Helbidea .....
Herria .....
Posta kodea .....
Telefonoa .....
Posta elektronikoa .....
Kontu zenbakia (IBAN) .....
Bazkidetza mota ☐ Arrunta (40 €) ☐ <30 urte (25 €)
Jaiotze data .....

noaua.eus

Udalak Ucini jarritako ingurumen baldintzen aurka agertu da epailea

Eusko Jaurlaritzak 2020an Ucin-en Ingurumen Baimen Bateratua eguneratzerakoan jarritako baldintzak zorroztu zituen Udalak jarduera lizentzia eguneratzerakoan; partikula gehiago etengabe neurtzea alegia. Urte luzez hainbat kutsadura arazo eragin dituen Ucin-ek iaz epaitegietara jo zuen, zer eta Usurbilgo Udalak jarritako ingurumen baldintzon aurka, "Udalak bere eskumenak gainditu zituela" argudiatuz. Epaileak orain partzialki bada ere arrazoia eman dio lantegiari. Jaurlaritzaren neurriak ezin dituela zorroztu dio, nahiz duen inspekzio gaitasuna aitortzen dion Udalari. Ucin-en lehen erreakzioa; epaileak aitortutako inspekzio gaitasun honen aurkako helegitea aurkeztu du.

Epaileak bestetik, ahalmen bat aitortu dio Udalari: inspekzio gaitasuna. Ucin-en lehen erreakzioa; epaileak aitortutako inspekzio gaitasun honen aurkako helegitea aurkeztu du.

Eskertza

'Oso atzetik dator, Ucin lantegiarekin herrian izan diren gorabeherak; kea eta usain txarra tarteko, hainbat kexu eragin ditu Osinalde industriaguneko lantegiak. Udalak hirigintza arloko bi zigor espediente ere zabaldu zizkion; bat 2019an eta 2020ko urrian.

Baina orain gertatu dena ulertzeko 2021eko otsaileraino egin behar dugu denboran atzera. Duela 17 hilabete Udalak berak jakitera eman zuenez, jarduera lizentzia eguneratu zion Osinalde industriagunean kokaturiko lantegiari. 2020. urteko uztailean eta azaroan Eusko Jaurlaritzak Ucini Ingurumen Baimen Bateratua eguneratu zion. "Eta horren ondotik eguneratu zuen Udalak lantegiaren jarduera lizentzia". Lizentzia berrituan, Eusko Jaurlaritzak baino neurri zorrotzagoak ezarri zizkion Udalak. Ordura arte, urtean zehar neurketa puntualak egiteko derrigortasuna baino ez zuen. "Aurrerantzean hainbat parametro modu jarraituan neurtzeko eskatu diote enpresari", jakinarazi zuen Udalak. Eusko Jaurlaritzak lantegi honetatik airera isurtzen den partikula bat neurtzeko betebeharra ezartzen zion; Udalak aldiz "lau partikula ezberdin uneoro neurtzeko betebeharra". "Guk dakigula, enpresa bati halakorik eskatu dion EAEko udal bakarretakoa gara", zioen Udalak 2021. urte hasieran.

UDALAREN IRITZIA

"Ezinbestekoa da kutsadura murrizteko neurriak jartzea", herritarrak, enpresak eta Udala elkarlanean. Enpresaren aldetik ordea, "isiltasuna jaso dugu"

Ingurumen neurriak hartzearen aurka, epaitegietara jo zuen Ucin-ek

Ucin-i lotuta izan genuen hurrengo albistea iazko maiatzean heldu zen. Hilabete hartako udalbatzarrean udal gobernu taldetik berri eman zutenez, Ucin lantegiak administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu zion Udalari. Auzitegira jo zuen. Abokatua eta prokuradorea izendatu behar izan zituen Udalak. "Penaz hartu dugu erabakia", zioen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta Mesak osoko bilkura hartan Osinaldeko lantegiak hartutako erabakiaz. Aurreko udal gobernu taldeen antzera, egungoa ere sarritan bildu dela zioen Ucin-ekin. "Ezinbestekoa da kutsadura murrizteko neurriak jartzea", herritarrak, enpresak eta Udala elkarlanean arituta. Bide horretan sakontzeko deia egin zioten Ucin lantegiari. Elkarlanerako deia egin arren, "isiltasuna jaso dugu", zioen alkateak.

Ingurumenaren aldeko neurriek babesik ez epaitegian

Epaitegietatik heldu da orain albistea. Epailea Ucin-en alde agertu da, bestela esanda, Usurbilgo Udalak iaz lantegi honi ezarritako ingurumen baldintzak ez ditu onartu, atzera bota ditu, "Udala bere eskumenetatik harago joan dela argudiatuta".

Zehazkiago esanda, "Udalak ezin ditu Eusko Jaurlaritzak ezarritakoak baino neurri zorrotzagoak jarri, baina, bestetik, inspekzio gaitasuna aitortu dio Udalari". Epaileak beraz partzialki arrazoia eman dio Udalari, baina enpresa aitortza honekin ere desados agertu da Ucin eta "helegitea jarri dio bigarren zati horri".

Epailearen erabaki honen aurrean, Usurbilgo Udalak argi dio; "Udalak hartutako bide hori ezohikoa da tokiko administrazioan, baina hala egitea erabaki zuen lantegiaren isurketek eragindako kezkak tarteko. Horrek bultzatuta jo zuen Ucinek epaitegietara". Eta kezka horrek bistan denez ez du epaitegien babesik izan.

Arkaitzerreka, kutsatua berriz

Zubietan gaur gertatzen ari dena oso larria da. Horrela jaso genuen uztailaren 13an erraustegi azpitik igarotzen den Arkaitzerrekan gertatzen ari zenaren berri. Beste behin, zubietar bati esker jakin zen gertatu zena. Erreka gorriz "tindatua" zetorren, eta apartsu. Ur gutxi zeramanez, are deigarrigoa zen Arkaitzerrekaren kutsadura. "Zer arraio gertatzen ari da?", galdetzen zuen sare sozialen bidez, jazotakoa salatuz Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak. Aldizkari hau inprentara bidali arte igaro den astebeteko tartean, ez da erantzunik izan.

Uztailaren 16an elkarretaratzea egin zuten Zubietan, Errausketaren Aurkako Mugimenduak deituta.

Momentuz susmoak baino ez. Erraustegiaren Aurkako Mugimendutik adierazi dutenez, "Arkaitzerrekan berriro ere agertu diren isurien aztarnak, 2009an Zabalgarbik izan zuen lixibiatuen isurketekin antzekotasun handia du. Orduan, Bilbo handira ur edangarria eramaten duen Ordunte kanaleraino iritsi ziren lixibiatuen kutsaduraren eraginak".

Arkaitzerrekako gertaeren lehen egunean, udaltzaingoa bertaratu zen, URA agentziako teknikariak baita. Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak egin bezala, guztiek ur-laginak hartu zituzten. Baita Usurbilgo Udalak ere. Ur-laginak hartu zituen baita, laborategian aztertzeko. "Emaitzen zain gaude", berri eman zuen kezkati agertu zen Agurtzane Solaberrieta Usurbilgo alkateak.

ISURKETA

"Arkaitzerrekako gertaeren lehen egunean, udaltzaingoa eta URA agentziako teknikariak bertaratu ziren"

Bitartean, kezka eta haserrea. Eta sare sozialen erabiltzaile baten baino gehiagoren ahotan esaterako, berriro hitza. Berriro, erraustegian gertatu diren ezbehar eta istripuekin batera, 2020ko maiatzean aipatu plantatik erreka honetara isuritako amoniakoak ehunka arrain eta aingira hil baitzituen. Egunotan Arkaitzerrako irudietan hain zuzen ez zen halako animalien arrastorik, sare sozialen bidez herritar batek gogorarazi moduan, "aurreko isurian hil zituztelako eta ez dutelako erreka berriro birpopulatu!".

Ahaldun Nagusiari argibide eske

Gertaturikoaren salaketa Zubietako plazara eraman zuten uztailaren 16an. Eguerdian egin zuten elkarretaratzean laugarren egunez argibideak eskatu zizkioten Gipuzkoako Ahaldun Nagusiari. "Markel Olano, zer ari da gertatzen Zubietako erraustegian?". Deitzaileek irakurritako adierazpenak dioen moduan, "asteazkenetik dator zikindu eta kutsatuta Arkaitzerreka, Zubietako erraustegiaren azpitik pasarazten dutena… Eta asteazkenetik gaude herritarrok erantzun garbien zain". Kezka agertu zuten, ez zelako erraustegiak eragindako lehen kaltea, "eta beldur gara ez dela izango azkena. Irregularta-sunak, lege-hausteak, istripuak eta kutsaketak behin eta berriro ari dira gertatzen. Arkaitzerreka ere ez da lehen aldia kutsatzen dutena. Eta beti herritarrak izan dira gertakizunen albistea eman dutenak, beti".

Aldiz, erraustegia kontrolatzeko betebeharra duten "funtzionario, agintari eta profesionalez" Gipuzkoa "gainezka" egon arren, Erraustegiaren Aurkako Mugimendutik iragan larunbateko Zubietako mobilizazioan ziotenez, "arriskuz betetako erraustegi bat kontrolatzeko orduan, inor ez dago: inor ez dago begira, inor ez zerbait gertatutakoan alerta jotzeko, inor ez susmagarriak kontrolatzen…".

Horregatik zuzentzen zi–tzaien Gipuzkoako Ahaldun Nagusi Markel Olanori, esanez, "ez duzue deskantsurik izan Zubietako erraustegi munstroa martxan jarri arte. Herritarrok behin eta berriro ezetz esan arren; udal askok demostratu arren hondakinak kudeatzeko modu merkeago, osasuntsuago eta efikazagoak badaudela; herri mugimenduak mobilizatu arren… lortu duzue nahi zenutena: herritarrak zorpean sartu, multinazionalak eta bertako enpresa lotsagabe batzuk aberastu, herritarrak publizitate kanpainaz engainatu… eta hondakinak alferrik galdu eta erretzen dituen munstro garestia martxan jarri".

Martxan jarrita ordea, "Gipuzkoan agintzen duzuen PNVko eta PSEko buruzagi profesionalak… orain non zaudete Zubietako erraustegia nola ari den egunero kontrolatzeko? Ez al diguzue informazio argi eta garbia zor Gipuzkoa osoko herritarroi eta batik bat erraustegiaren arriskuak etxe ondoan dauzkaten hemengo herritarrei?".

Isurketa baino, ustezko iragazketa

GuraSOSek oharra plazaratu du egunotan. Lehenbizi, kontuan hartzeko datu bat kokalekuaz. “Hiru egun dira, dagoeneko, diametro handiko hodi batetik likido okre-gorrixka eta aparra ateratzen ari dela. Hodi horrek Arkaitzerreka errekara isurtzen du, Tratamendu Mekaniko Biologikoko instalazioak eta erraustegia dauden plataformatik behera”.

Gertatu denarekiko dagoen isiltasuna deigarria zaio GuraSOS-i, “ingurumeneko edo industriako kontrol-eskumena duen ezein agintarik, batez ere Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ez duela inolako oharrik argitaratu, ez eta erraustegiko instalazioetan ikerketa- edo ikuskapen-eginbideak burutu ere. Ez da izan ez 112ren oharrik, ez eta horri buruzko bestelako publizitate edo informazio ofizialik ere”.

Deigarria iruditzen zaio baita, “GHK, arduraduna izatearen susmagarri nagusia, ikertzaile “ofizial” moduan agertzea, toki horretako instalazio arriskutsu eta kutsatzaile bakarraren titularra denean, eta, horregatik, ikertu egin beharrekoa”. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak hain zuzen, ohar labur bat helarazi die egunotan hainbat hedabideei. GuraSOSen esanetan, “ez du ukatzen gertaerarekin zerikusirik duenik. Argi dago instalazio horietatik ez dela isurketarik egin. Begi-bistakoa dela diogu, inork ez baitu esan isurketarik egon denik. Are gehiago, sare sozialetan argitaratutako bideoek agerian uzten dute 2020ko maiatzeko isurketa gertatu zen isurketagunea dagoen kanala garbi dagoela. Plataformaren ondoko drainaren irteeran sortzen da arazoa, ur beherago dagoena. Horrek esan nahi du ez gaudela ustezko isurketa baten aurrean, baizik eta balizko lixibiatuak iragaztearen aurrean —kontuan izan isurketaren eta iragazketaren arteko aldea—, edo lurrean iragazi eta kutsadura-gertaera eragin duten instalazioetako prozesuetan sortutako beste substantzia batzuk”.

“Hiru egun dira dagoeneko, diametro handiko hodi batetik likido okre-gorrixka eta aparra ateratzen ari dela”, GuraSOSek uztailaren 15ean salatu zuenez.

GURASOS

GuraSOSek gogorarazi duenez, “erakunde administratibo eta judizialek erantzukizunak argitzeko betebeharra dute. Eta jakina, erakunde politikoek gai lotsagarri bat dute eskuetan, berehala konpondu beharrekoa”

Horren harira, GHK-k “existitzen ez den isurketa egon izana ukatzen du. Baina ez du ukatzen, adibidez, filtrazio baten aurrean gaudenik”. Eta zer jazo den ezagutzekotan Kontsortzioak jakin dezakeela dio GuraSOSek. “GHK da gertatzen ari denarekin zerikusia izan dezaketen azken aste edo egun hauetan egin diren eragiketak ezagutzeko egoeran dagoena. Hondakinen hobiak, lixibiatuen kutxatilak edo bestelako instalazioak garbitzeko edo mantentzeko lanak buruzatzen zaizkigu. Bere betebeharra da datu horiek publiko egitea eta gardentasun osoz jardutea”.

Ikerketapean, emaitzak fiskaltzaren esku

GuraSOSek argi du ez dela ikerketarik egingo “eta hori oso larria da administrazio publikoa den heinean. Baina eskandalagarria da Garapen Ekonomiko, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila in situ ikerketa bat egiten ez aritzea poluzioaren jatorria ezagutzeko. Edo aztarnak desagertu zain daude? Egunak pasatzen diren bitartean, gizarteari ulergaitza egiten zaio inork ezer ez egitea”.

Baina GuraSOSek ohartarazi duenez, “berriro ere gizarte zibilak salatu du gertaera berri hau, eta ikertzen ari da. Ikerketa horien emaitzak fiskaltzaren esku daude dagoeneko, eta azkar eta zehaztasunez jarduteko eskatzen diogu. Gizarteak eskubidea du gertatzen ari denaren arrazoiak eta erantzuleak ezagutzeko”.

GuraSOSek gogorarazi duenez, “erakunde administratibo eta judizialek erantzukizunak argitzeko betebeharra dute. Eta, jakina, erakunde politikoek gai lotsagarri bat dute eskuetan, berehala konpondu beharrekoa. Ezin gara bizi ingurumen-arazoak eta ziurgabetasuna etengabe sortzen ari diren instalazio opaku batzuen etengabeko mehatxuarekin. Kontrol demokratikoa, orain! Porrot egin duen proiektuari behin betiko irtenbide politikoa!”.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·karta ·oilasko erreak, hanburgesak..
paellak enkarguz!
619 40 91 98
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 71 38 03

txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patri
Patrienea jatetxea
·bazkariak EGUNERO
·afariak: OSTIRAL/LARUNBATA
943 362725
688 690 361

Lur Errekondo, 'Naufragoak' ETB1eko saio berriko aurkezlea

Lehen eskubaloian, azken aldian harrijasotzen eta udazkenetik aurrera aurkezle lanetan ere ikusiko dugu Lur Errekondo herrikidea Euskal Telebistan. ETB-k jakinarazi duenez, 'Naufragoak' izeneko saio berria aurkeztuko du udazkenetik aurrera, Iñigo Vicensekin batera. Kariben girotua egongo den abentura lehiaketa berria izango da.

Lur Errekondo eta Iñigo Vicens, 'Naufragoak' saioko aurkezleak. Irudia: ETB.

'Naufragoak' saio berria irailean estreinatuko da, Gasteizko FesTVal telebista jaialdiko aurkezpenaren ondoren. 'El Conquis' lehiaketa ezaguneko sortzaileak dira egitasmo honen sustatzaileak. Oraingo hau ordea, euskaraz eskainiko da.

Modu honetan aurkeztu ditu ETB-k saio berri honen gidariak. "Lur Errekondo eskubaloiari lotutako familia batetik dator. Xabier Mikel Errekondo jokalari mitikoaren alaba da, eta Bera Beran jokatu zuen, Ohorezko Mailan, belauneko lesio batek eskubaloia uztera behartu zuen arte. Orain harri-jasotzailea da. Iñigo Vicens berriz, prestatzaile fisikoa da, crossfit eta entrenamendu funtzionaletan aditua. Etxetik kirola egiteko 'Adinberri' telebista saioaren aurkezlea ere bada ETB1n".

'NAUFRAGOAK'

"Irailean estreinatuko da, Gasteizko FesTVal telebista jaialdiko aurkezpenaren ondoren"

Igandean, II. Emakumezkoen Zarauzko Bi Harri Txapelketan

Zarauzko Bi Harri Txapelketaren edizio berri bat jokatuko da datorren igandean, 18:00etatik aurrera, Zarauzko Aritzbatalde pilotalekuan. Sei izango dira txapelketan lehiatuko diren harrijasotzaileak, tartean Lur Errekondo usurbildarra. Jai Txiki (63 kg) eta Mollarri (51 kg) harriak altxa beharko dituzte.

Eneko Furundarena, Europako txapeldun

Espainiako eskubaloi selekzioak Europako Junior Txapelketa irabazi du. Aurreko igandean jokatu zen finala eta Portugal izan zen aurkaria. Etxean jokatzen zutenez, portugaldarrek zalegoa alde izan zuten hasieratik. Hala ere, Espainiako taldea nagusitu zen. 35-37 azken emaitza. Txapeldunen artean Bidasoa Irun taldeko lau jokalari daude: Gorka Nieto, Julen Mujika, Julen Urruzola eta Eneko Furundarena usurbildarra.

Eneko Furundarena, garaikurra eskuetan duela.

Txirrindularitza probak

Donostiako Klasikoa

Uztailaren 30ean ospatuko den txirrindularitza probak udalerri hau zeharkatuko du. Donostiako Alderdi Ederren hasi eta hiriburutik irtengo dira. Txikierditik barrena, N-634 errepidetik Usurbil eta Aginaga zeharkatuko dute partehartzaileek; 12:04 aldera Usurbil, 12:09 aldera Aginaga. Azken kilometroetan Igarako itzulia egingo dute, Murgiletik barrena. 17:30ak alderako aurreikusia dago probaren amaiera Gipuzkoako hiriburuko Bulebarrean. Guztira, 224 kilometroko ibilbidea osatuko dute txirrindulariek. Informazio gehiagorako: klasikoa.eus

'La Vuelta'

Espainiako txirrindularitza proba honek ere aurreko urteen antzera, Usurbil zeharkatuko du. Zehazkiago esanda, abuztuaren 24an jokatuko den bosgarren etapan. Irun eta Bilbo lotuko dituen 187 kilometroko ibilbidearen baitan, 26. kilometroa izango da udalerri hau. Txirrindulariak Donostia aldetik helduko dira, Txikierditik barrena. N-634 errepidetik igarotzen ikusi ahalko dira Usurbilen nahiz Aginagan. Handik Oriorantz joko dute. Informazio gehiago: lavuelta.es

2023ko Tourra, gertutik

Euskal Herrian abiatuko da. Bi etapek Usurbilek mugakide dituen zenbait udalerri zeharkatuko dituzte.

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

ERAMATEKO!!!
·EGUNEKO MENUA
·KARTA
ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
(ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trastelekua, balkoia eta terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Usurbilen bizi den mutil gazte ukrainar batek gela bat alokatu beharra du. Urgentziazkoa da. 649 429 416

Pisu bat epe luzerako alokatu nahi dugun bikotea gara. Lan egonkorrarekin. 611621181.

Alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil Usurbilen. 622925562

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentea da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Neska kaudimenduna, maskotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

MOTORRA

Salmenta, garajeak

Aginagan, Elutx kalean 30 m^2 garaje itxi bat salgai. 629460966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209 .

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Zerbitzaria behar dugu asteburuetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondo jatetxean. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jatetxean. 666 671 444

Lan eskaerak

Ostalaritzan edo pintura lanetan zein igeltseritzan lan bila nabil. Urteetako esperientzia lehen mailako ofizial bezala eta ostalaritza munduan ere bai. Negozio propioa ere izan dut ostalaritzan. 657 683 762

Umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil, orduka zein egun osoz. 624 509 470

Emakumeak orduka zaintzeko lan bila nabil goizetan, arratsaldetan zein gauetan. 609 647 728

Umeak zaintzeko eta ingelesa irakasteko prest dagoen neska gaztea. Interesatuak: 644 716 739

Adinekoen eta haurren zaintza lana edota etxeko garbiketak egiteko eskaintzen naiz. Esperientzia eta gomendio onak ditut 602568090.

Umeak zaintzeko prest dagoen gazte euskalduna. Jada umeekin esperientzia badaukat. Interesatuak: 688 73 43 44

Margoketa lanetan, altzariak zaharberritzen 30 urteko esperientzia. 626 10 70 76.

Erizain laguntzailea naiz eta pertsona helduak zaintzeko edo garbiketak lanak egiteko lan bila nabil. Orduka, gauak edo astebukaerak interna moduan aritzeko prestasuna daukat. 672 587 671

Umeak zaintzeko prest. Harremanetarako: 695 184179 / aneseoane@gmail.com

Hotel, jatetxe, soziedade edo etxeetako garbiketa lanak egiteko prest: 671763558

Adinekoak zaintzen esperientzia eta gomendioak ditut. Interesatuok idatzi edo deitu hona. jaquecamilo_1230@hotmail.com / 671 199 489

Goizetan bulegoak eta etxeak garbitzeko, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko eskaintzen naiz. Erreferentzia oso onak dauzkat. 688 715 958

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxeko lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

BESTELAKOAK

San Estebanen (Zabale inguruan) betaurreko graduatu batzuk aurkitu ditut. Galdu dituenak Udaltzainetan dauzka jasotzeko.

24 hazbeteko telebista berria salgai. Erabili gabea. 646 185 716.

Zorionak Izar!
Uztailaren 29an 6 urte egingo dituzu. Etxeko danen partetik urteaskuan!

Zorionak Haizea! Abuztuaren 10ean 5 urte beteko dituzulako! "Azenariyua" prestatu beharko dugu ezta? Je, je... Segi beti bezain alai eta jator! Muxuak familia guztiaren eta, bereziki, Xune eta Xairen partez!

Goardiako farmaziak

Osteguna	**21**	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala	**22**	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Larunbata	**23**	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Igandea	**24**	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Astelehena	**25**	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Asteartea	**26**	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Asteazkena	**27**	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Osteguna	**28**	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola 9. Lasarte
Ostirala	**29**	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Larunbata	**30**	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Igandea	**31**	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.

Agenda uztaila

23 larunbata

- **Zubietako jaiak:** 18:00 Jaien hasiera: txupinazoa eta buruhandiak. Jarraian, txosnen irekiera Elenek eta Uxuek girotuta. 19:00 Sardin jana. 23:00 Kontzertuak: Skakeo, Perlata, Fan&Go. Ondoren, Gurdiertz Rock II.

24 igandea

- **Sareren bizikleta itzulia.** 11:00 Mikel Laboa plazatik San Inaziora joateko deia.
- **Zubietako jaiak:** 14:00 Jubilatuen bazkaria. 17:30 Ttipikarekin dantzaldia. Segidan buruhandiak. 19:30 Bingoa. Gero Txalagore taldea. 21:00 Herri afaria. Ondoren, Laiotz.

25 astelehena

- **Zubietako jaiak:** 09:00 Esnadeia, Donostiako Txistulari Bandaren eskutik. 10:00 Meza Nagusia. Ondoren, hamaiketakoa eta soka-dantza. 17:30 Lopene ganadutegiko zezen txiki eta poniak. 19:30 Bertsolarien saioa. Gai-jartzailea: Zortzitan Bertso Eskola.

Sareren bizikleta itzulia

Bizikleta martxa antolatu du Sarek, "Etxera bidea gertu!" aldarripean asteburu honetarako. Azken etapa, uztailaren 24an izango da, Azpeitia Donostiarekin lotuko du eta bidean Aginaga eta Usurbil zeharkatuko dute partaideek N-634 errepidetik barrena. Parte hartzeko izena aurrez eman daiteke sare. eus atarian. Txirrindulariei harrera egitera deitu du bestalde Usurbilgo Sarek. Igande goizeko 11:00etan Mikel Laboa plazan biltzeko deia egin du, handik San Inaziora jaitsi eta itzulikoei ongi etorria emateko.

Presoen eskubideen aldeko beste bi hitzordu uda honetarako; batetik, abuztuaren 7an hondartzetan elkarretaratzeak deitu ditu Etxerat-ek, Usurbildik gertuen Orion. Sarek mobilizazioa abuztuaren 20an 12:30etan Aste Nagusi betean egongo den Donostiako Bulebarretik. Urriaren 8rako jaialdi kutsuko mobilizazioa.

Sareren bizikleta itzuliak igande goizean zeharkatuko ditu Aginaga eta Usurbil.

Maria Jesus Etxeberriaren erakusketa berri bat

Maria Jesus Etxeberriak argazkiak ateratzeko ohitura du. EITBren eguraldi saioetan adibidez, noiznahi ikusiko dituzue bere lanak. Erakusketak ere egiten ditu tarteka. Egunotan hain zuzen, Etxeberriaren irudi berrienak Artzabalen topatuko dituzue. Usurbilen eta inguruko herrietan eginikoak dira denak. Irailaren 1era arte Artzabal jatetxeko paretetan eskegita egongo dira.

Usurbilen eta inguruko herrietan eginiko argazkiak Artzabalen topatuko dituzue.

Datozenak

Musika Hamabostaldiko kontzertua

Organo Zikloaren baitan, 15 kontzetu antolatu dituzte Gipuzkoan barrena, horietako bat Usurbilgo Salbatore Parrokian, abuztuaren 14an. Gunnat Idenstam organo jolearen emanaldiaz gozatzeko aukera izango da 20:00etan. Doako kontzertu honetan, "Peaceful Organ, garai nahasietarako meditazio inprobisazioak" eskaini asmo ditu, Usurbilgo Udalak lagunduko duen hitzorduan. Informazio gehiagorako, quincenamusical.eus atarian.

Eskualdea ezagutzeko txangoak

Doako sei ibilbide gidatu eta interpretatu Behemendiren eskutik uda honetan:

- Uztailak 30, Lasarte-Oria: "Aire libreko museoa".
- Abuztuak 7, Urnieta: "Adarramendi inguratzen".
- Abuztuak 27, Usurbil: "Urdaiaga ezagutzen".
- Irailak 3, Astigarraga: "Santiagomendi eta ekialdeko mugarriak".
- Irailak 25, Hernani: "Trikuharriz trikuharri".
- Informazioa eta erreserbak: donostialdea@behemendi.eus 656 705 243

Otar-Goxo
Elikagaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA
SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!
ZUMARTEGI INDUSTRALDEA
943 36 10 79

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHASTAPP-ETIK!
650 31 31 91 USURBIL

AÑORGA TXIKI S.L

KRISTALDEGIA

Beirazko itxitura **sistema berria**!!!
Perfil bertikalik gabe!!
Zure balkoia itxi nahi baduzu galdeiguzu!
Aukera zabalak!

beirazko itxitura
seeglass ONE
perfil bertikalik gabe

·komertzial instalazioak ·beira bikoitza ·segurtasun beirak·dutxa-itxiturak eta irristailuak
·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Ondo pasa Santiotan!!

ZUBIETA
Batu, ez banandu

EUSKAL PRESOAK
EUSKAL HERRIRA

STOP
makroespetxeari